



# GATAZKA MINERALEI BURUZKO ADIERAZPENA

TRANSPORT SYSTEMS  
TRAINS  
BUSES  
SIGNALLING  
COMPONENTS  
SERVICES

**Your Way**  
to Future Mobility

*Konpainiak helburu informatiboekin soilik ematen du hurrengo euskarazko itzulpena, Konpainiaren webgunean eskuragarri dagoen jatorrizko dokumentu ofizialean oinarrituta. Euskarazko bertsioaren eta gaztelerazko dokumentuaren artean desadostasunik egonez gero, azken hori gailenduko da.*

CAF Taldeak (aurrerantzean, "CAF") konpromisoa **hartua** du enpresa-jokabide eta -etikako estandar gorenekin. Irizpide estandar horiek webgunean ([www.cafmobility.com/](http://www.cafmobility.com/)) eskuragarri dauden politika korporatiboetan islatzen dira, eta haietan behar den arduraren irizpidea aplikatzen du, bereziki Jokabide Kodean, Jasangarritasun Politikan eta Giza Eskubideen alorrean Behar den Arduraren Politikan. Horrela, eta Nazio Batuen Mundu Itunaren ekimeneko kide gisa, **CAFek** oinarritzko balio multzo bat hartu, babestu eta sustatzen du giza eskubideen, lan-estandarren, ingurumenaren eta enpresa-etikaren arloetan, ustelkeriaren prebentzioa barne.

**CAFek** bere negozio-bazkideei eskatzen die (besteak beste, hornitzaileei eta azpikontrastei) konpromisoa har dezatela, etengabeko hobekuntzaren ikuspegitik, Hornitzaileen Jokabide Kodean zehaztutako baldintza sozial, ingurumeneko, osasunezko eta segurtasunekoekin, nahitaez bete beharrekoak baitira.

CAFen hornitzaileek eta azpikontrastek konpromisoa hartzen dute, Hornitzaileen Jokabide Kode horren ondorioz, beren hornitzaileei eta azpikontrastei antzeko konpromisoa eskatzeko, zaintza-kate bat ezartzeko. Kate hori mineralen trazabilitatea bermatzen duen jarraipen-sistema da, eta hornikuntza-kate osoan jardunbide legal, etiko eta iraunkorrak betetzen direla bermatzen du, meategietako erauzketatik hasi eta azken produktuetan txertatu arte.

**CAFek** Europan du egoitza, eta EB/2017/821 Europako Erregelamendua hedatzen laguntzen du. Erregelamendu horrek behar adinako arretaren betebeharrak ezartzen ditu Europar Batasuneko ezta inu, tantalio eta wolframioaren eta haien mineralen eta urrearen inportatzaileentzat, gatazkek eragindako eta arrisku handiko lekuetatik datozenentzat. Araudi horren arabera, pieza metalikoen eta osagai elektronikoen "bitarteko erabiltzaileentzat" hartzen **da** CAF, eta, horretarako, hornitzaileekin eta azpikontrastekin lankidetzan aritzeko konpromisoa hartzen du, pixkanaka-pixkanaka pieza metalikoz eta hornidura-kate arduratsuetako osagai elektronikoz hornitzeko.

Gatazka-mineralei dagokienez, Hornitzaileen Jokabide Kodea onartzean, ezta inu (Sn), tantalioa (Ta), wolframioa (W) eta urrea (Au) (3TG) duten ondasunak hornitzen dituzten hornitzaileek eta azpikontratatzaileek konpromisoa hartzen dute **CAFI** hornidura arduratsuko kate bat ezartzen laguntzeko, Mineralen gaineko Arretari buruzko Gidaren arabera.

Gardentasuna eta araudia betetzen direla bermatzeko, Informazioaren Barne Sistemarako sarbidea (arau-hausteak edo enpresa-etikakoak CAFeko edozein erakunderi jakinarazteko salaketa-kanalak dituen) **eta** hura garatzen duten arauak eskuragarri daude webgune korporatiboan ([www.cafmobility.com/](http://www.cafmobility.com/)) eta mendeko erakundeen webguneetan, herrialde bakoitzari aplikatu beharreko lege-eskakizunen arabera. Informazioko Barne Sistema hori publikoa da, eta bide egokia da adierazpen honen xedearekin lotutako edozein ez-betetze edo kezka jakinarazteko, kezka guztiak konfidentziasunez, eraginkortasunez eta berme guztiarekin tratatzen direla bermatuz, eta komunikazio anonimoak baimenduz, informatzaileak hala nahi badu.

Eguna: Iraila 2024  
Sinadura: Aitor Galarza  
Ekonomia eta Finantza Zuzendaritza eta Estrategia

<b>HISTORIKOA</b>	<b>DATA</b>
Hasierako edizioa.	2024-09

